



GAUR UXOLA SARIAK 2010 GEHIGARRI BEREZIA

Lehen Hezkuntzako lan sarituak argitaratuko ditugu gaur, ekainaren 12an eta 13an DBHko ikasleek

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-06-06

VIII. URTEA 2.020. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Alegian, hurrek ere Txintxarri abesbatzaren 50. urteurrenez gozatzeko aukera izan zuten. A. BELAUNZARAN



Iarra izan zen atzoko produktu izarra Tolosako azokan. A. IMAZ

Azokan erositako produktuak prestatu dituzte

TOLOSA KM 0 ekimenaren baitan lau sukaldari elkartu dira larunbateroko azokaren inguruan 4

ALEGIAN, VILLABONAN ETA ANOETAN BADA ZER OSPATUA

AISIALDIA Anoetan gaur igoko dute Kukuak; Alegian eta Villabonan Txintxarri abesbatza eta Behar-Zana elkarteak kalera irten dira 6-7

Ingurumena zaindu egin behar dela gogorarazi dute

EGITARAUA Zizurkil eta Asteasutik mendi ibilaldia egingo dute gaur; hilaren 12an Anoetan auzolana 7



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



**ziklo guztiak
euskaraz**

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 31etik EKAINAREN 11ra

GOI-MAILAKO ZIKLOAK


- Fabrikazio Mekanikako Produkzio Programaketa
- Informatika Sistemen Administrazioa
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Metal Eraikuntza

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

K Komikia

Nando



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Hizki txikitan

» Iritzia

Garbiñe Mendizabal
Tolosaldea Garatzen

Biodibertsitatea. Ingurumena. Hitz potoloak, borobilak eta urrunekoak iruditzen zaizkigu gure herrietan horietaz mintzogarrenean. Badirudi guk ezin dugula ezer egin biodibertsitatearen babesaren alde, ez dela gure eskumena. «Hizki handiz idazten diren erakunde publikoen zeregina da hori, ez gurea» pentsatzen dugu askok eta askok.

Baina biodibertsitatea gure eskualdeko herri bakoitzean dago, landare eta animalia guztietan eta gure herri berde honetako txoko guztietan. Eta ingurumena, arnasten dugun airea, edaten dugun ura eta hainbeste maite ditugun gure Tolosaldeko bazterrek, landagu-

neek, osatzen dute. Ahaztu egiten zaigu ordea hauek guztiak zain-tzea.

Horregatik, Europatik Natura 2000 Sarea izendatu dute, ingurumen balio handia duten naturguneak identifikatuz eta bertako landare eta animalia mehatxatuak babesteko asmoz. Gurean badira batzuk: Ernio-Gatzume, Oria Garaia, Araxesibaia, Aralar edota Leitzaran ibaia. Eta egun, herritarren partaidetza prozesuak jarri dituzte abian eskualdeko naturgume horiek kudeatzeko planak ahalik eta irekienak izan daitezzen.

Papera birziklatzea modernoa zaigu, eguzkiaren indarra eta hai-zearen indarra energia bihurtzea modernoa zaigu eta kotxe elektrikoak erabiltzea modernoa zaigu. Ordea, Tolosaldeko biodibertsitatearen alde eta nazioarteko ingurumenaren alde, are modernoa-

goa da gure larreak beti egon ohi diren bezala mantentzea, modernoagoa da gure nekazariak ekoizten dituzten produktuak zuzenean erostea eta modernoagoa da oihalezko poltsa bat eramatea beti gurekin erosteketa egitera goazenean. Guzti horri hizki handiz idazten den eta oso modernoa dirudien kontsumo iraunkorra dei diezaiokegu baina azken finean, zentzuz jokatzera eta beti egin ohi den bezala kontsumitzea besterik ez da.

Izan ere, *Think global, act local* leloak dioten bezala, hizki handiek, potoloak eta urrunekoak azkenean hizki txiki eta xumeak behar dituzte. Eta ekainaren 4ko Nazioarteko Ingurumenaren Eguna eta 2010eko Biodibertsitatearen Urtea ez dira ezer Orea, Bidegoian, Tolosa edo Zizurkilgo herritarrik, animaliarik eta landararik gabe.



Leitzaran ibaia ingurumen balio handiko naturgunea osatzen du. A. ARANBURU

Mikel Gonzalezentzat oparia

ERREDAKZIOA

Atzo jokatu zuen Errealak ligako azken partidako bat, Cadizen. Iragan astean berriz Villareal Bren aurkakoa jokatu zen Anoetan eta Mikel Gonzalezen golarekin hiru puntuak etxean gelditu ziren.

Gol horrek, sari bikoitza zuen ordea. Lehen aipaturiko hiru puntuez gain, Mahala baserriko produktuak etxera eramateko aukera. Mahalako gaztetxoek Zubietara joan ziren eta bertan eman zioten oparia Mikel Gonzalez arrasatearrari. Aupa Erreal! oihukatuz animatu zuten jokalaria txikiek.



Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

G Gutunak

Atez ateko bilketaren inguruan

Usurbilen urtebete darama atez ate deituriko zaborren kudeaketa sistemak martxan, Hermanin ere duela gutxi hasi dira eta atzetik Oiartzun eta beste udalerrri batzuk jarraituko dute.

Emaitzak hor daude eta zalantzak dituen joan dadila bertara *in situ* ikustera.

Sistema hau ez dute «denaren kontra» dauden lau erok asmatua. Urrutira joan gabe Katalunian udalerrrien %30ek dute martxan eta helburua da epe ertainera Katalunia osora hedatzea alderdi politiko guztien oniritziarekin, gai honetan hemen baino arduratsua-gojokatu baitute politikoeak.

Kontua da atez atekoarekin, gaika behar bezala bilduta gaizki deituriko «zaborra» % 20ra jaistea lortu dutela martxan jarri duten udalerrietan eta ondo eginez gero %10era jaitsi daitekeela; Nola? Gaika bilduta, alde batetik organiko dena (guztiaren %30-%40 artean), konpostatu eta ongari gisa erabil ahal izateko, eta beste guztia ahal dena berrerabili edo bestela birziklatuz. Prozesua ongi eginez

gero, esan bezala «zaborra» %10era jaitsi daiteke.

Sistema erraz, merke eta eragin-kor honen aurrean, erakunde batzuetatik, itsu-itsu, erraustegi edo «intzineradora»-ren apostua egiten zaigu, ondoan inork nahi ez duena. Labe erraldoi hau, alde batetik izugarri garestia da krisi garai hauetan eta asko igoko luke zaboztzen faktura eta bestetik, hitzak adierazten duen bezala, intzineradorak dena «intzineratu», erre, egiten du: organikoa, plastikoa, berrerabili daitekeena... eta tximiniatik ateratzen diren ke eta hautetik zabortegi bihurtzen dute ingurua, eta arnasten dugun airea, osasunerako honek dakarren kalte guztiarekin.

Beraz, hau horrela izanda, ezin da inolaz ere onarti *monstruo* garesti eta kaltegarria gure poltsiku eta osasunerako.

Bidea etorkizunera begira beste bat da, ingurua zabortegi ez badugu bihurtu nahi.


Beraz, eskatzen diegu Tolosaldeko arduradun politikoei arduraz joka dezatela eta eman diezagutela aukera Tolosaldean atez-atekoa frogateko.

Ana Eizmendi.



Gaur amaituko da Artisautza Azoka

TOLOSA Ostiralean martxan jarri zuten Artisautza Azoka gaur amaituko da. Triangulua plazan aurkitzen da eta artisau produktuak ikusi eta erosteko aukera aparta dago bertan. Eskualdeko artisauz gain kanpotik etorritakoek osatzen dute Azoka. Talo postua ere bertan dagoela azpimarratu behar. A. IMAZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Garaian garaiko produktua azokatik sukaldera

ASIER IMAZ

Tolosako Azokan goizean goiz topatu ziren atzo Joxean Eizmendi, Txaro Zapiain, Hilario Arbelaitz eta Roberto Ruiz. Tolosako Azoka+KMO ekimenak elkartu zituen Illarra, Roxario, Zuberoa eta Fronton jatetxeetako kideak.

Produktuak ikusi eta saltzaileekin hitz egin ondoren, garaian garioari heldu zioten, hau da, ilarrei eta patata berriari.

Azokatik Gaztelako arkupera joan ziren. Bertan zain zuten sukaldera, txukun txukun prest.

Ilarrak eta patata berria

Biosagai hauetan oinarriturik, ohiko platerak egin zituzten, tortilla, entsalada, krema edo purea... «fantasiak» alde batetara utzita. Hala eta guztiz ere, sukaldariak zerbitzengatik dira, eta harritzeko moduko itxura hartu zuten azokan erositako produktuek.

Janari usainak jendea azkar eta erruz bildu zuen Gaztelako arkupearen inguruan. Lau jatetxeetako kideek prestatua gozamen handiz jan eta dastatu zuten, dohainik gainera.

HIRU NEURRI, BAINA PRODUKTU BAKARRA

Sukaldariak itxurari baino garrantzi gehiago eman zioten atzo zaporeari. Joxean Eizmendi Illarrako Kofradiako kidea da eta izar txiki honen inguruan gauzak argi eta garbi azaldu zituen, arestiko ideia azpimarratuz.

Hiru tamaina desberdin aurki ditzakegu azokan. Txikia, ertaina edo handia. Bakoitza gordinik dastatuz gero, desberdintasunak agerian gelditzen dira. Txikiak, zapore ederra dauka, urtsua. Ertaina irekiz gero, barnean gorputzen ari dela ikusten da. Handiaren kasuan, barneko gorputza garatuagoa du eta ez dauka txikiak duen freskotasun hori.

Arrautza eta patata berriarekin gosari eder bat egiteko handia; plater bereziren bat egiteko txikia eta saltsa berdea egiteko ertaina. Hirurak goxo-goxoak dira. Hirurak tamaina desberdinetako ilarrak dira, baina hirurak dira ilarrak. Horrela azaldu zuen Joxean Eizmendik.

Lehen orduetatik giro alai atzoko azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso alai suertatu zen. Eguraldia lagun genuela, sukaldari famatuen bisita izan zen, eta hauekin, Ilarraren gaineko pin-txoak ere izan ziren. Askok aukera aprobetxatuz, beraien bueltaxka egin zuten, eta goizeko lehenengo orduetatik animazioa ikusi izan genuen postuetan.

Eskaintza oso zabala: udaberriko barazki asko, ilarra eta baba nagusi direla. Hauekin azalorea, patata berria, zainzuria edota erre-molatxa ere oso itxurosoak zeuden. Perretxiko aukera pixkanaka aldatzen doa. Gero eta ziza gutxiago dago aukeran. Bestalde, onddo eta ziza horien kopurua geroa da.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk.	Gares.	Babarrunzuria	8,00	-	
Landareak		Tomatea	3,25	4,00	
Alegria	1,50	2,00	Ilarrak	8,00	12,00
Menta	1,50	6,00	Babak	2,00	3,00
Zainzuria	2,80	-	Bainak	3,00	4,00
Berbena	3,00	-	Patata berria	1,50	2,00
Salbia	1,00	1,20			
PRODUKTU EKOLOGIKOAK					
BERTAKO PRODUKTUAK		Fruta			
Perretxikoak		Sagarra	2,00	3,00	
Onddoak	30,00	-	Intxaurra	4,00	6,00
Zizak	10,00	36,00			
Gibelurdina	30,00	-	Besteak		
Ziza horia	20,00	-	Ahuntz gazta (200gr)	3,00	-
Barazkiak (kiloa)		Ogia (800gr)	2,55	-	
Tipula berria	1,50	-	Mermelada	3,00	3,60



Tolosa Azokak+KMO'ko sukaldariak erosketak egiten azokan. Joxean Eizmendi donostiarra ilar artean. A. IMAZ



Eizmendi, Zapiain, Arbelaitz eta Ruizek prestatua gustura dastatu zuen jendeak. A. IMAZ

10:00etarako dena salduta

A. IMAZ

Lau sukaldariak erosi zituzten Tomas Salaberriaren azken ilarrak. Iragan larunbatean «zakarragoekin» jaitsi zen Santa Luzia auzotik eta etxera eraman beharrean suertatu zen. Atzo berriz, 10:00etarako denak saldu zituen. «Bezperan bildutakoekin etorri naiz eta ikusten denez, jendeak ez du zakarregirik nahi».

Postu berean Juanita Aurkia, Leaburuko Arbola Txikikoa eta Paulina Mujika, Bidaniko Betelu

baserrikoa aurkitzen ziren. Ilarra bezala, aurten patata berria ere indartsu etorri dela azaldu zuten.

Gazteak eta helduagoak

Tomas Salaberriak bezala, Kontxi Zabalak ere ilarra kiloan 8 eurotan saldu zuen. Alegian bizi den alkizarak Ugarten dauka baserria, Saberrri hain zuzen ere.

Argazkia ateratzeak lotsa pixka bat eman bazioen ere, amaieran dotore jarri zen kameraren aurrean. Zabalak mahai gainean jarrita-

ko ilarraguztiak saldu zituen lehen orduetan. «Patata berria, ilarrak, azelgak, letxua... ekarri ditut. Garaiko produktuak».

Erosleen inguruan gazteak eta helduagoak aipatu zituen alkizarak: «Gazteek lanarekin azokara etortzeko denbora asko ez dute. Etortzen direnean gainera behar dutena aurkitu eta erosi egiten du. Helduek berriz, prezioa galdatzeko ohitura handiagoa dute. Garesti xamarra dela iruditzen baldin bazae ez dute erosten».



Paulina Mujika, Juanita Aurkia eta Tomas Salaberria ezkerrean. Kontxi Zabala eskuinean. A. IMAZ





Ibarrako pintura tailerretan herriko eta Tolosako margolariak aurkitzen dira. Lekuz nahiko estu aurkitzen direnez, Ibarrako Udalarri deialdia egin diote. ANE SANZ



Tolosaldeko paraje eta koloreen erakusketa, ekainaren 18ra arte egongo da zabalik Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean. ANE SANZ

Eskualdeko koloreak Kultur Etxean

Ibarra » Pintura tailerrekoen esposizioak atek zabaldu ditu; aurten, Tolosaldeko paisaiekin osatu dute erakusketa.

ANE SANZ

Urtero bezala, Ibarrako Kultur Etxeak kurtsu amaierako esposizioaren atek zabaldu ditu. Baina aurten berezitasun batekin; Tolosaldea ardatz duen esposizio batekin sarrera eman diote. Pintura tailerreko ikasleek egindako margolanak, bi astez egongo dira ikusgai.

Ekainaren 18ra arte. Ondoren, Kultur Etxeak eskaintzen dituen tailer desberdinen artelanak egongo dira ikusgai.

Taldean oso giro ona

Pintura tailerra duela hamahiru urte hasi zen Ibarran. Gaur egun hamaika ikasle daude, Ibarrakoak

eta Tolosakoak denak. Afizioagatik hasi ziren gehienak, eta taldean duten giro onak jarraitzera eramandu ditu. «Taldeen oso ondo konpontzen gara denok, eta gustuko duguna egiten denbora pasatzeko aukera ezin hobea da», azaltzen du Axun Aranguren.

Printzipioz denbora pasa den arren, taldekideek hainbat Txinparta sari irabazi dituzte. Longaronek lehiaketarako baseak azaltzen dizkie, eta nahi duena aurkez daiten. Joxe Mari Longaron, irakaslea, taldean bat gehiago da. Klase-

tan margotzeko gaia librea den arren, lagundu eta bideratu egiten dituelarik.

Bide batez, aukera hau aprobetxatu nahi izan dute, Udaletxeari deialdi bat egiteko: «Aurten hamaika gara taldean, eta ez dugu lekurik. Batak bestearen mahaiari joka aritzen gara nahigabe».

Leku gehiago izatea gustatuko litzaieke. Horrela, jende gehiago anima dadin deialdi bat egin ahal izateko. Baina denek bat egiten dute, triste, inori ez zaiola axola esatean.

Ikusi nahi izanez gero, erakusketa ikusgai egongo da ekainaren 18ra arte. Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 21:00etara.

Ekainaren 21ean erakusketa berri bat estreinatuko dute Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean. Azken honetan, tailer desberdinetako lanak izango dira ikusgai (bolloak, eskulanak, margolan gehiago...). Bi astez egongo da zabalik. Lehenengo astean goiz eta arratsalde, eta bigarrenan goizez bakarrik irekiko ditu atek.

Gazteak protagonista Jaien azken egunetan

Anoeta » Jai giro bikainean ospatu zuten Gazteen Eguna. Iluntzean, dantza emanaldia eskaini zuten plazan.

ABELAUNZARAN

Herri lasterketarekin eman zioten hasiera egunari. Adin ezberdinetako gaztetxoek herriari korrika eman zioten itzulia. Buruhandien eta erraldoien txanda izan zen eguerdian, txistulariekin batera ateratzen ziren kalejiran. Goizean, korrika egin zutenen atzetik. Mus Txapelketan, norgehiagoka estuan aritu ziren bikoteak. Modu berean ere, txirriindulariak, arra-

tsaldeko lasterketan. Judo erakustaldiarekin, eguneko kirol jarduerari amaiera eman zioten.

Ondoren, kalejiran iritsi ziren gazteak, sagardoa dastatzera. Txorizo eta gazta pintxoekin, errazago edan zuten sagar zukua. Ondoren, herri afariarekin borobildu zuten eguna. Jandakoak jaisteko, gazteek dantza emanaldia eskaini zuten eta Laket taldeak erromeria-arekin argurtu zuten Gazte Eguna.



Gazte eta umeen lasterketan jende askok hartu zuen parte. ENERITZ MAIZ



Herriko gazteak, kalejira aurretik indarrak hartzen. AGURTZANE BELAUNZARAN

Musika, kantua eta bertsoa nagusi kaleetan

ABELAUNZARAN

Eguzkiak eta musikak alaitu zuten Alegiako kaleak atzo. Txiki-enek, eskulan tailerlean, danborrak eta marakak egin zituzten gurasonen laguntzarekin.

Gosariak bereziak izan ziren; musikatuak. Herriko musikariek, piano eta gitarraren doinuekin go-

xatu zituzten herritarren belarriak. Oria ibai ondoko terrazan, Iñaki Mezkitak gitarralagun, emandigi goxoa eskaini zuen.

Herriko musikariak

Maria Beatriz Stipetich eta Dani-tza alabak, Peruko musika herrikoia emanaldia eman zuten,

ikusle mordo baten aurrean. Amaieran, Danitza alabak gitarrak eskuetan hartu eta amarekin Itoiz taldearen *Lau teiatu* abestu zuten. Aitor Iraola gazteak, piano emanaldi bikaina eskaini zuen, lagun eta herritarren aurrean.

Eguerdian, Loatzo Musika Eskolako kideek, Txintxarri Abesbatzarekin batera kalejira egin zuten. Bazkari herrikoian, 180 lagun bildu ziren, giro bikainean; Mediterraneo tenperaturan, hango janari tipikoa, paella, edari freskoa eta postrea izan zituzten.

Bazkalostea Keiran eta Oinazez taldeek alaitu zuten. Ondoren, beorari aurre egiteko Alboka poteoan, tabernaz taberna barruak freskatu zituzten. Poteoak, Zahagiardoari eman zion lekukotza.



Loatzo Musika eskolako kideak eta Txintxarri Abesbatzoak kalejiran. A.B

Bertso musikatuak

Iluntzerako, bertsoek hartu zuten protagonismoa Tontokalen. Zazpi Astoren gainean bertso taldekoek, *Hustukoixkiu* diskoa aurkeztu zuten. Bertso musikatueta, umorerik ez zen falta. Tontokaleko harriari jarritako bertsoak, ikusleen artean barreak eragin zituen.

Herrian ezagunak diren, Ziklox Garaialde eta Manillares Iturriaga taldeen txanda izan zen gero. Eskainitako emanaldian, kanta ezagunak abestu zituzten. Amaitzeko Itzel taldeak dantzaldia eskaini zuten.

Musikaz Blai! eguna herriko kultur taldeek antolatuta zuten Txintxarri Abesbatzak 50. urte betetzen dituela aitxakia hartuta.



Aitor Iraola gazteak, piano emanaldi ederra eskaini zien herritarrei. A.B

Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak
José Pastilloren eskutik

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 3. alea

berriarekin eskaintza berezia

Aurreko bi aleak ez badituzu eskuratu, eskatu orain. Hirugarren alearekin batera jasoko dituzu.

EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

AUKERA EZAZU, BIZI ERASOTZEZ, berria

Laguntzailea FAGOR

Nazioarteko Ingurumenaren Egunean

Ingurumena » Nazioarteko Ingurumenaren Eguna izan zen atzo. Eskualdeko herrietan ekitaldi ezberdinak izan ziren.

ERREDAKZIOA

Atzo, hilak 5, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna izan zen. Gainera, 2010. urtea, Biodibertsitatearen urtea da. Hori dela eta, eskualdeko herri ezberdinetan, Aste Berdea ospatzeko ekitaldi ugari prestatu dira. Atzo, Aduna, Alkiza, Ikaztegieta eta Villabonan izan ziren.

Villabonan, goizean zehar Berdura Plazan *Atari Bizi* lehiaketako loreak banatu zituzten. Udaleko-ek, guztira 700 landare banatu zituzten herritarren artean.

Adunan, egun osoan izan zituzten ekintzak. Goizean, haur eta heldu, Ursaltoko errekarara joan ziren. Inkesta bat bete behar izan zuten errekararen inguruko galderekin eta ikusitakoarekin. Bi ondorio garbi atera zituzten. Ona, erreka iaz baino garbiago dagoela eta txarra, errekararen zati batean, *Reinuria Japonica* izenez ezagutzen den landare inbaditzailea aurkitu zutela. Bidaia honen ostean, *Glup! Zabor Bizidunak* pelikula ikusi zuten.

Ikaztegiatan, 11:30ean plazan elkartu ziren eta Iñaki Mezquita lagun zutela Kutturru parkerako bidea egin zuten. Bidean zehar eta

Odonatoen bizileku den hezagunean bertan Mezquitaren azalpenak jaso zituzten.

Alkizan, Intsektu automaten tailerra egin zuten Kultur Etxean. Goizez eta arratsaldez elkartu ziren. Ikasleek txorien inguruko lan-keta eta deskribapenak ezagutzera eman zituzten. Erakusketa ere antolatu dute.

» EGITARAUA

Gaur, Zizurkilan

■ **Ibilaldia.** Zizurkil eta Asteasutik mendira ibilaldia egingo dute.

Ekainak 12, Anoetan

■ **Garbiketa.** 10:00etatik aurrera, auzolanean erreka garbituko dute.



Villabonako Berdura plazan, herritarren artean 700 lore banatu zituzten. E.MAIZ



Ikaztegiatan, Odonatoen bizilekua den hezagunea bisitatu zuten. A. BELAUNZARAN



Adunan, errekatik buelta egin ostean, pelikula ikusi zuten. E.MAIZ



Behar-Zana Elkartek 64 urte

VILLABONA » Atzo eta gaur, Behar-Zana Elkarteko kideak ospakizunetan daude. Atzo, egun osoko festa izan zuten: pilota, xakea, Joko Garbiko partidak, buruhan-

diak, meza, afaria, danborrada... Gaur berriz eguna txistularien dianarekin hasiko dute. 11:00etan errebo-te partidua eta ondoren, bazkaria izango dituzte. A.B.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** AIXAM markakako autoa salgai. Oso egoera onean dago. 2000 km. 4500 euro. Interesaturik deitu 943654490 telefonora, arratsaldeaz, 15:00etatik aurrera.

ALOKAIRUAN

■ **Autokarabana.** Familia batek autokarabana alokatu nahi du, uztailearen 10etik 24era (gutxi gora behera). Interesaturik 675713073 telefono zenbakira deitu behar dute.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Amezetako Jatetxe batek zerbitzaria behar du astebukaeretan lan egiteko. Interesaturik 605 727 730 telefono zenbakira deitu beharko dute informazioa gehiago jasotzeko.

GRUPO OTEIC

TOLARGI
Energía y Servicios
S.L.

Tolargi S.L.K. energia elektrikoaren banaketaz arduratzen den udal sozietate publikoak, honako deialdi hau egiten du:

Administrari baten aldi baterako praktikaldiko lan kontratazioa

Deialdearen oinarriak Tolargiren bulegoan eskura daitezke (Rondilla kalea 34, behea, Tolosa) edo Interneteko helbide honetan: www.tolargi.com. Eskeraerak egiteko epea 2010eko ekainaren 13an bukatzen da.



15°
8°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. LAINOTUA
BEROENA 23°
HOTZENA 12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirolari atek zabalik eguna gaur eskualdean

■ **Anoeta.** Herriko festen barruan, 11:00etatik aurrera, pala partidak jokatu dituzte frontoian. Helduen partidak izango dira eta Kuku Pilota Elkarteak antolatu ditu. 18:00etan, Udalak antolatuta, herri kirolak izango dira.

■ **Alegia.** Udalak antolatuta, 10:00etan, herriko plazan ginkana egingo dute.

■ **Altxo.** Udalak antolatuta, 09:00etatik 11:30era mendi irtee- ra egingo dute. Herritar guztiak gonbidatuak daude parte hartze- ra. Jarraian, 11:30ean, herriko fron- toian, Altxoko pilota eskolako pilo- tariak elkarren aurkako partidak jokatu dituzte.

■ **Asteasu.** 11:00etatik 12:30era, Ciclo Indor egingo dute fron- toian. 12 urteko gorakoei zuzen- dua izango da Udalak antolatu duen saio hau. 10:00etatik 13:00etara berriz, herritar guztiak, kiroldegiko gimnasioan egingo di- ren saio gidatueta doan parte hartzeko aukera izango dute.

■ **Ikaztegieta.** Udalak antolatuta, 11:00etan herriko plazatik patine- tan edota bizikletan aterako dira. Bidegorritik, Legorretara joan-eto- rria egingo dute. 12:00etan, kirol- degiko zelaian futbol partidak izango dira. Adin guztiari zuzen- duak daude.

■ **Tolosa.** Udalak antolatuta, Uztu- rerra igotza egingo dute 10:00etan abiatuta Santa Klaratik edota beste aukera, 11:00etan, pa- tinia herrikoia egitea izango da herriko bidegorrietatik barrera. Tolosako Udalak eta Kirolzer-ek antolatuta, Usabal kiroldegian, goizez, eskalada probatzeko auke- ra izango da. Sarrera doan izango da eta begiraleekin egingo da saioa.

■ **Villabona.** Olaederra kiroldegia antolatuta, 09:00etatik 14:00eta- ra sarrera librea izango da. Adin eta herritar guztiak izango dute aukera erabiltzeko.

Deialdia

■ **Lizartza.** Ina Zeberioi omenal- dia. 09:00etan, mendi ibilaldia. 13:00etan, ekitaldia monolitoaren aurrean. 14:30ean, bazkaria elkar- tean.

Mendi Irteera

■ **Villabona.** Ekain 12an eta 13an, Gavarnie-Tucarroya-Monte Perdido-Lago Helado-Cilindro-Casco-Garvarnie mendi irteera egingo du Aizkardi Mendi Elkarte-

ak. Izen-ematea, elkartearen bertan ostegunetan egin beharko da 20:00etatik 22:00etara. Edota, aizkardi@aizkardi.com helbidera idatziz edo 649 71 71 82 telefono zenbakira deituz.

■ **Tolosa.** Tolosan bizi den Azdour Ali mendi gida bereberak trekkin- gak antolatzen ditu Marokoko Atlas mendikatean. Interesatuak, deitu 636 00 02 71 telefonora.

Jaiak

■ **Anoeta.** Herriko jaiak. 11:00etan Gorritiren festibala. 11:00etan, Pa- leta Txapelketako finalak.

12:00etan, Buruhandi eta erral- doien kalejira. 17:30ean, herri kiro- lak. Arozetxea ondoko belazean: Alkiza eta Anoeta arteko apustua. Ondoren, Kupela erromeria tal- dea. 23:00etan, Kupela erromeria taldea plazan. 00:00etan, Zezezn suzkoa eta Kukuaren igoera. On- doren, Kupela erromeri taldearen jarraipena.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Hilaren 12a bitarte, Adol- fo Tannenbaumen argazkiak ikus- gai daude Aranburu Jauregian. Udak Kultur Batzordearen eskutik.

■ **Tolosa.** *Carnet de voyage. Vuelta de Chile* erakusketa ikusgai dago hilaren 13, igandea bitarte GKO Galleryn.

Kirola

■ **Zizurkil.** *Paskualtxori* omenaldia. 11:30ean, herri kirol jaialdia, Zizur- kil Beheko Adunibarreko zelaian izango da. 14:15ean, Intxaur Fron- toian, herri bazkaria trikitilari eta bertsolariekin.

Kultur Aroa

■ **Leitza.** 12:30etik 14:00etara or- gano kontzertua elizan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Erroman Martikorenaren kontzertuarekin jendeak gozatu egin zuen. ENERITZ MAIZ

Musun baserriaren aldeko Euskal Herria Kantuz! saioan elkartasuna nagusi

Leitza » Abeslari guztiak musu-truk aritu ziren Leitza Plazan. Erantzun ezin hobe jaso zuen jaialdiak.

ERREDAKZIOA

Atzo, Leitza Plazan hitzordu gar- rratzitsua bitu zuten. Jaialdiaren helburu nagusia, herriko Mus- un baserriaren aldeko dirua bil- tzea zen. Duela hilabete batzuk sute baten ondorioz baserri guztia erre zen.

Oholtza gainean, musikari eza- gun asko izan ziren: Pantxoa eta Peio, Erraman Martikorena, Patxi Saiz, Thierry Biskary, Jaione Ola- zabal eta Jon Gurrutxaga. Haez gain, Doneztebeko Mahai Inguru taldeak, Leitza Jeiki Abesbatzak eta Leitza Aurrerako dantzariak aritu ziren. Guztiak, elkarlanean eta musu-truk aritu ziren.

A Agurrak



Zorionak!

Iraitz Izagirre (Zegama).
Zorionak eta muxuak biharko partez, aita txok eta amatxok.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Artiketxe nekazal turismoa



M^a Lourdes Ruiz Bilbao
Artike, 16 48370
BERMEO (BIZKAIA)

Tfnoa: (+34) 946 885 629
Faxa: (+34) 946 882 312

Bakio eta Mundakako hondartzen artean kokatua, Bermeoko kaxkolik 1 Km tara, Urdaibaiko biosferan, 6 logela bikoitz, denak komunarakin, TB duen egongela eta hiru terraza ditu. Baserriko produktuekin egunko gosariak eskaintzen dira. Inguruan ekiniza ugari egiteko aukera dago.

Geltoki kalea,
1 behea
20400 Tolosa
Gipuzkoa




- Laserra -
- Hortz-zuritzea -
- Inplanteak -
- Hiru dimentsiotako radiologia digitala -

Tel: 943 249 882 carbilla@hartzklinika.com ZBKIA: 20000825

Uxola Sariak 2010

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



MUNDU MAGIKOA

TOLOSA Atzokoan Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako (8, 9 eta 10 urte) gaztetxoek lanak kaleratu genituen, eta gaurkoan 5. eta 6. mailakoek (10, 11 eta 12 urte) txanda da; Edurne Sanz, Ana Becerril, Haritz Estivariz, Karla Murguialday, Libe Barriola eta Maria Magro dira saridunak.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila: Prosa

'Lorezaina eta zaldiak'

EDURNE SANZ ARSUAGA 1. saria

Buzen behin Jesus izena zuen eta hogi ure inguru zituen egien zuen. Ite-apaindegi batean egien zuen lan. Ez zegoen batere pozik bere lande eta bizi-moduarekin, horregatik, bere gitarra hartu, matxetak egin eta munduan barrena abiatu zen.

Bihar urteratulo duna, gure lana alferrikakoa izan dola ilustean. Gauetan, lorategi oso surtsinua izango da hiru zaldi basantiengatik. Orduan, dena berriro landatzen hasi beharko daga. Hori guero gertatzen da.

guztuko morroi eta neska me gurtzik harrituta geratu ziren lorategi txukun ilustean. Aspaldiko porrez, erregeak, erreginak eta printzesak lorategian egoteko aukera izan zuten. Batez ere Gloria printzesak pasa zuen ordu, berri landariek esko gastezaten zitizialdiakoa. Jesus eta Gloria elkar ikusi ordulo segituan maitemindu ziren.

- Mila esker. Behar nauzuenen, esan -Lagundu, zaldi zurri' eta han engono naiz -esan zion zaldi zuririk. Jesusak.

Eta hura izan zen hiru zaldik lorategira joan ziren azken aldia. Hilabete botatik geroago, Manuel erregeak bere alaba Glorik segituan nire ama Joseneri esan niri. Asko gustatu zitzaizkidan eta berak ere esolako joan nintzen. Han Paula ikusi nuen eta txapinena



HITZA

Herriakde asko zeharkatu ondoren, Manuel erregeak agintzen zuen herriakdera iritsi zen. Jesus Manuelen gastez arantz abiatu zion lana eskatzen eta han lorezain lana egotiko zioen, nahiz eta berak landareak buruzko ezere jakin.

Gau hura Jesusek lorategian esna pasatzen erabaki zuen. Gauko bederatzietan, zuluaitz baten azpian eseri zen, gitarra jotzen. Orduan, hiru zaldik iritsi ziren. Bat beltza zen, beste zuria eta azkena, marroia. Ata irakidzen zen bitartean, Jesusak gitarra jotzen jarraitu zuen. Zaldiak, musika entzuzkan, bere ondian jarri ziren eta ez ziren batere mugitu. Horrela egon ziren gau egunetan, Jesus gitarra jotzen eta zaldiek bere ondian, eguzkiaren lehen izpiak agertu ziren arte. Ute hartan hiru zaldi misteriozkoak joan egin ziren.

Gau hartan Jesusak berriro lorategian gaua gitarrarekin pasatzea erabaki zuen, badaezpada ere. Hiru zaldik beregana iritsi zirenean, hitz egin eta guzti egin zioten.

-Gure, emango eta diokiguzun azar-hosto batzuk?-galdetu zion zaldi zuririk.

eskalkera. Gloria printzesa oso pozik jarri zen, berak Jesusa maite baitzuen.

-Ikusiko duzu -esan zion lankide botek Jesusi, bere lehenengo egunetan- hilabete luzeetan ez duzu urtebete baino gehiago iraindu.

-Batez ere? Iba lan honet polka ematen du.

-Bai, guseak guade-esan zion zaldi marroirik.

-Mesedez -gehitu zuen zaldi beltzak.

Jesusak eskatutako eman zion.

'Etxeko txapin magikoak'

ANIE BECERRIL IRAOLA 2. saria

Kaio!! Nik Nerev izena dut eta orain 11 ure ditut. Tolosan bizi naiz Korreo kaleko 17. portalean. Ez dut anai-arrebarririk baina ondo moldatzen naiz. Nik bakarririk jolastzen dut edo besteak, nire lehenetsuak etortzen direnean, berriekin.

koratutu nire pasa zena. Berak esan zidan ezagutzen zuela etxetik gertu etxeko txapin politik saltezen zituen dendak bat, leaci egoteko ere esan zidan, joan gogin eta horretan. 11:00ak iritsi ziren eta karroa hartuta kalera atera ginen.

genuen, bakarrik zegoen eta ordutan ogi zati bat eman genion. Segituan jan zuen! Oso pozik jarri zen, baita ga ere; segituan korrika batem nire zeri eta pentam genuen pozik joan zela.

karritak zituzten. Etxera iritsi ordulo, kaxa ireki nuen eta etxeko txapinak ateratzean hau uteskabe! Instrukzioak elartzen zituzten. Nire buruari galdetzen niren eta zertarako behar niren etxeko txapinazko instrukzioak! Badaezpada ere inkurari egin nuen eta begira zer jartzen zuen.



HITZA

Larunbata zen eta esanatu ordulo komanera joan nintzen etxeko txapinekin. Bidean nintzela, katapua!!!! Etxeko txapinak puskaru egin zitzaizkidan. Orduan nire amaro Joseneri

Lehenengo, harategian sartu ginen; orra, osolako eta arkumeo erosi gaituzten, gure frutu- dendara platanak, kiwiak eta marribak erosterik; okindegian erosi goginuen eta azkoniñ nire ama kutzazalnera joan zen; erosketak egin ondoren kaleetik gindokozela txakur bat ikusi

Exem gastaera egon nahi dituztenaz.

2- Oso eroso bali, erabili eta abidiara handia hartzen duen etxeko txapina da.

3- Norbait leku batera joan nahi duenean erabilzeko.

4- Nola erabili: leku batera joan (hurrengo orrian jarraitzen du)

'Lehenengo euskalduna Jupiter-en'

HARITZ ESTIVARIZ MARTINEZ 3. saria

Kaio, ni Mikel naiz, hogei bat ure ditut eta Tolosan bizi naiz. Ni oso ezaguna naiz nire herrian, ezere jakin zergatik naizen bain ezaguna? Ba, ni izan nintzen lehenengo euskalduna Jupiter planetara bidaltzeko zuzendari, iritsi ere egin nintzena. Niri asko gustatu zitzaizkan, hamar urte nintzenen, hizitza nuen abentura hau, eta horregatik zuke kontatzea erabaki dut.

gelditu ginen. Horren ostean, Iker, Martin eta ni etxera bueltatu ginen harrituta. Nik, etxera iritsi behar nintzen, gertatutako azaldu ondoren, josteko baimena eskatu nuen. Amak ez zidan sinetuen, eta amets bat zela pentsatzen, balez, esan zidan. Baina baldintza batekin, nire lagun misteriozua horie urte batzuk bakarrik joango nintzela esan behar niri.

nengon errege izateko. Hurrengo egunean, errege izendatu nintzen. A zer poza hartu nuen egun hartan? Orduan estralurtar batek esan zidan: -Zorionak, Mikel, azkenean lotu dugu, zuzenrik, gure planetara salbatu egin da. Eta nik esan nione: -Lasai, ez da ezer izan. Niretzako errega besteak behen egotea, ohore bat da.

Egun batean, nire etxean nengapde, nire lagun Ikerrekin mendira josteko erabaki nuen. Orduan, nire telefono magikorra hartu eta Ikeri deitu nion. Iker oso langile eta hilabete onakoa zen, eta segituan esan zidan nirekin joan nahi zuela. Biko, hamar eta erdian nire eta ezagupen gertu ginen. Segituan, josteko erabaki nintzen, hainarrak eta laundak zirelako. Jantzi eta gero, etxe azpira jaitsi nintzen.

gelditu ginen. Horren ostean, Iker, Martin eta ni etxera bueltatu ginen harrituta. Nik, etxera iritsi behar nintzen, gertatutako azaldu ondoren, josteko baimena eskatu nuen. Amak ez zidan sinetuen, eta amets bat zela pentsatzen, balez, esan zidan. Baina baldintza batekin, nire lagun misteriozua horie urte batzuk bakarrik joango nintzela esan behar niri.

Oraindik bi hilabete geratzen zitzaizkidan Jupiterren egoteko. Izan ere oso ondo aprobetxatu nituen! Jupiterreko harrakiek ezagutu nituen, estralurtarrek in jolatu nuen... Oso ondo pasa nituen bi hilabete haiek, baina, etxera bueltatzeko ordur iritsi zitzaizkan.

Bide erdian gindokozela, gure lagun zahar bat ikusi genuen, Martin izenekoa. Martin ere Uzturrearra ziboa eta gurekin etortzera gertatutako gertuen. Ia bertorean gurenduzkan gauza araro bat ikusi genuen zeruan. Estralurtar orotia zirendien, baina hori ezinezkoa zela pentsatu ondoren, aurrera jarraitu genuen.

gelditu ginen. Horren ostean, Iker, Martin eta ni etxera bueltatu ginen harrituta. Nik, etxera iritsi behar nintzen, gertatutako azaldu ondoren, josteko baimena eskatu nuen. Amak ez zidan sinetuen, eta amets bat zela pentsatzen, balez, esan zidan. Baina baldintza batekin, nire lagun misteriozua horie urte batzuk bakarrik joango nintzela esan behar niri.

Hurrengo egunean esatuzerakoan, nire guzrak preparatu eta estralurtarrik agurtzera joan nintzen. Estralurtarrik nahiko triste zudenak, baina, beste behin bueltatuko nintzela esan nien. Tolosan iristen orain hantze zuden herriak guztiak, nire aita, nire ama, nire arreba... Baita Iker eta Martin ere. Denak zexkan han. Oso pozik jarri nintzen dendak ilustean eta berehala berakargina joan nintzen. Amak izugarriko erreteta lota zidan. Baina hala ere pozon ginen zen ni ilustean. Ezin zuen sinistu ere egin azkenean ni Jupiterreara joan izana.

Handik minutu batzuetara, berriro ikusi genuen gauza araro hori zeruan, baina orain askoz gertuago zegoen, ondo ilustean zen, estralurtarren ontzia zen. Izugarria zen, estralurtarren ontzi bat Euzkalk Herriari Ezin genuen sinistu ere egin, nola iritsiko ere zen? Orduan, hamar metro araberago, gure begiak ikusi genuen nola lur gertatzen zen. Amets bat zela zute genuen, eta, handik atximuakal egiten ari gineka, ate bat ireki zene.

gelditu ginen. Horren ostean, Iker, Martin eta ni etxera bueltatu ginen harrituta. Nik, etxera iritsi behar nintzen, gertatutako azaldu ondoren, josteko baimena eskatu nuen. Amak ez zidan sinetuen, eta amets bat zela pentsatzen, balez, esan zidan. Baina baldintza batekin, nire lagun misteriozua horie urte batzuk bakarrik joango nintzela esan behar niri.

Hor bukatu zen nire abentura araro eta misteriozua hau. Niri asko gustatu zitzaizkan eta horregatik kontatu dizuet. Hurrengo batean berriro bueltatuko naiz beste abentura bat kontatzeko, etxandako ditut eta. Bueno, eskerrik asko hemen egoteagatik eta, agurr!!

Bigarren froga oraindik zailagoa izan zen. Jupiterri hamar buelta eman behar nizekin, korrika, hilabete erdian. Oso nekagarria izan zen baina, berehala galditu nuen froga hau ere, gainera, Gipuzkoako bigarren zikleraren nintzen karerra luzatzen, eta hori pentasutezake lagundu egin zidan. Horrela, bigarren froga ere galditu nuen. Handik gutxi berriro lehenengo estralurtarra atera zen. Guregana hurbildu zen eta beren planeta salbuzten etxeri zirela esan zigun. Jupiterri beste hiru estralurtar etxeri zitzaizkigun. Haiek, beren planetariko errega bat behar zuten esan ziguten, eta guri eskatu ziguten errega izatea. Iker eta Martin ez zuten prest Jupiterreara joteko, eta nik, gurazokoz uzten buzdaitzen joango nintzela esan nien. Beraz, Ikerarekin leku buerdinean

galditu ginen. Horren ostean, Iker, Martin eta ni etxera bueltatu ginen harrituta. Nik, etxera iritsi behar nintzen, gertatutako azaldu ondoren, josteko baimena eskatu nuen. Amak ez zidan sinetuen, eta amets bat zela pentsatzen, balez, esan zidan. Baina baldintza batekin, nire lagun misteriozua horie urte batzuk bakarrik joango nintzela esan behar niri.



HITZA

'Etxeko txapin magikoak' en jarrapuzen) nahiz duzuenen soil-soilik leku herretako izena esan behar duzu adibidez, komanera!!

koratatu egin nion. Gero berak Mikeli kontatu zion eta Mikelik Joseri, Joserek Maitaneri, Maitanerek eskolako zuzendari, zuzendariak eskualde telebistako zuzendariari. Eta eskualde telebistako zuzendariak mandu gutxielako telebistako zuzendariari.

6-3-3 ure dituzten umeez gandiak urrian maitandu.

Erreza iritsi nintzen eta telebista piztu nuen. Etxeko txapinena ateratzen zen. Mundu guztian saltezen zituzten: Ameriketara, Ozeaniantara, Afrikara eta nola ez Europara. A ze kaka-nahastea egin naite! Oso gaizki sentitzen nintzen. Nola sentituko zan etxeko txapinak erosi nituen dendako salbazale? Pentasuten nuen.

Hori inkurari eta gero jantzi egin nintzen eta oso gustatu nengon, atazan buruko bat bezala zutela. Geroago probatu egin nuen komanera josten eta esan nuen: komanera! Eta ziru bizian komanetan nengon. Gell!!

6-3-3 ure dituzten umeez gandiak urrian maitandu.

Segituan nire ama Joseneri esan niri. Asko gustatu zitzaizkidan eta berak ere esolako joan nintzen. Han Paula ikusi nuen eta txapinena

gelditu ginen. Horren ostean, Iker, Martin eta ni etxera bueltatu ginen harrituta. Nik, etxera iritsi behar nintzen, gertatutako azaldu ondoren, josteko baimena eskatu nuen. Amak ez zidan sinetuen, eta amets bat zela pentsatzen, balez, esan zidan. Baina baldintza batekin, nire lagun misteriozua horie urte batzuk bakarrik joango nintzela esan behar niri.

Gero ohera joan nintzen. Esamtu nintzenen arropak jantzi, gosaldu eta eskolara joan nintzen. Han Paula ikusi nuen eta txapinena

gelditu ginen. Horren ostean, Iker, Martin eta ni etxera bueltatu ginen harrituta. Nik, etxera iritsi behar nintzen, gertatutako azaldu ondoren, josteko baimena eskatu nuen. Amak ez zidan sinetuen, eta amets bat zela pentsatzen, balez, esan zidan. Baina baldintza batekin, nire lagun misteriozua horie urte batzuk bakarrik joango nintzela esan behar niri.



HITZA

Uso!! gastezan mendira joteko prest.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila: Olerkia

'Itsasoa'

KARLA MURGUIALDAY ZUBELDIA > 1. saria

Ene itsasoa
leuna, gozoa
haizeak orrazten du
arroken albora.
Kaiok erakartzen
bere ondora
arrokak kolpatzen
hemendik kanpora

Gaur zaude
haserre bizian
horrela zeunden
lehenengo aldian.
Arrainak kulunkatuz
jira-biran
mundua suntsitu nahian
agian?

Hauteman dizut
zerbait berria
akaso al da
apar zuria?
Menditik
zirudien
ertzarik gabeko
irria

Musu eta fereka
ene begiak
sakonki
maite zaitut.
Giza jatorria
erroen erroa
gazia
nire herri honen
errai gezia



HITZA

'Espaloi ertzean'

MARIA MAGRO IZAGIRRE > 3. saria

Espaloi ertzean,
gizon bat diru eskean,
hiru txanpon lurreko txapelean,
jendeak zerbait uzten du
pasatzean

*Una moneda eskean,
gizon bat espaloi ertzean,
kantuak gogoan,
eskusoinua jotzean.*

Txaloak entzutean
bera pozaren pozean,
dirua botatzean,
gracias esatean.

Etxetik urrunean
bizi da espaloi ertzean,
txanponik ezean,
kalearen bakardadean



HITZA

'Gera zaitez!'

LIBE BARRIOLA GOIKOETXEA > 2. saria

Ez joan zure bizitzaren minaren mundura
gera zaitetz hemen zure maitasun eta
goxotasunaren munduan.
Ez utzi niri bakarrik larrosa usteldu baten antzera

Zu gabe, malkoak ixuriko zaizkit
masailetik behera. Nire bihotzari ezti guztia
joango zaio betirako, nere goxotasuna,
desioa, ilusioa, ametsa, etorkizuna...
den-dena joango da

Ez iezadazu gogorarazi pasa ditugun
momentu desatseginak eta gogorak. Nire benetazko
ametsa, zu nirekin hemen geratzea da eta maitasun
osoaz gu biok maitatzea, ezer desatseginik pasa gabe.

Ni, bakarrik, andre zahar bat maitasunez ixilunez eta
amets gabea izango naiz zu joaten bazara. Ezingo
dizkizut
gauetan zuri nire gauzak kontatu, ezingo ditut nire
tristeziak eta momento gogorak zurekin elkarbanatu.

Zergatik joan? Zergatik utzi ni bakarrik?
Zergatik sufriarazi? Zergatik? Joaten bazara
milaka arrazoi edukiko ditut arnasari eusteko
baina nire bizia zu zara, hori beti gogoratu



HITZA

